

# BERRIGARA

76. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1992, irailak 18

**HELDUEN  
HEZIKETA  
IRAU KORRAK  
MATRIKULA  
ZABALDU DU**

**SAN  
MARTINAK  
NORMALTASUN  
OSOA ETA  
JENDE PILOA  
KALEAN,  
URTEKO JAIRIK  
POLITENETAN**

## **KIROLAK**

**II. KIROL  
ARGAZKI  
LEHIAKETA  
KONBOKATU DU  
KIROL  
ZERBITZUAK**



**Txilabean herrian  
bakeroak egiten**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA  
ADIMENTSUA**



WALANT



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENZIAZ.

OPEL

**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46.  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEN:  
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria.

# EUSKARA IKASTAROAK

## 1.992-93

Bergarako  
Udal  
Euskaltegia

Maila guztiak:  
EUSKALDUNTZEN  
ALFABETATZEN  
EGA


16 urtez  
gorakoentzat

*\* Bekatze-sistema eta  
diru-laguntzak izango dira*

### HELBIDE BERRIA:

Blidekurutzeta, 27  
(sarrera Zabalotegitik)

# MAITATUZ MINTZATU



### ERRITMOAK

Egunero 2 ordu  
Egunero 3 ordu  
Egunero 5 ordu

### IRAUPENA

Iraila-Ekaina  
Iraila-Ekaina  
Iraila-Otsaila

### PREZIOAK

16.000 pzta  
22.500 pzta  
22.500 pzta

### MATRIKULALDIA

Irailaren 9tik 22ra arte

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 8.30 - 12.30  
Arratsaldez: 14.30 - 20.00

BERGARA  
UDAL EUSKALTEGIA  
BIDEKURUTZETA, 27  
TEL. 76 44 53

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jaurlaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Ilorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifü eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Loge gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

# DANBORRADAK

Danborradak izan ditugu aste honetako protagonistak. Badirudi Udalak aspaldiko ohitura hau indartu nahi duela eta jendearen erantzuna ere primerakoa izan da. Asteartean 170 pertsona inguru atera ziren bost taldetan banaturik eta, asteazkenean, haur tanborradan 90 bat neska-mutil izan ziren danborrak jotzen.

Hala ere, nobedarek aipagarriena musika izan genuen. Orain arte Udal Bandak danborradari lagundu badio ere, asteartean, guztiek eritmo bera eramateko, altabozak



jarri ziren herriko kaleetan, musika alde zuretik grabatuta zegoelarik. Eta amaieran, Gurutzeatzearen orde, neskato bat tanbor haundienetik irten zen ikurriña astinduz.

## Ikusmin haundia eta nobedadeak danborradetan

## ITURRI ONETIK

### Osintxun gasolindegia eraikitzeke eskabidea

San Lorentzoko gasolindegian berritze lanak laster batean hastekoak diren bitartean, Osintxun gasolindegia berria eraikitzeke eskaria egin dio Bergarako Udalarari Muniola S.L. enpresak. Udalak horretarako aukera badagoela erantzun dio, baina gasolindegia eta honen osagarri diren edifizioak bakarrik jasoz, eta ez dela onartuko kafetegi, taberna, automobilen konponketarako tailer edota garbiketa gunerik.

## ESAN DUTE

"Galtzen baduzu ez duzu lau txakurraundi balio eta irabazi ezkerro, berriz, fenomeno bat zara... Beti esan dut futbola ez dela Athletic-en amaitzen. Orain Eibarren nago eta oso pozik gainera".

### ASIER GARITANO Futbolaria

EGIN

"Bergarak, bere ehunak tintatu dituen kolore berarekin tintatu du Deba ibaia".

### ENRIQUE AYERBE

Idazlea

DEIAKO

"LO MEJOR DE EUSKADI" GEHIGARRIA

"Deigarria da Basalگو auzoak bere Santiago eliza nola zaintzen duen ikustea".

### L. PEÑA SANTIAGO

Idazlea

EL DIARIO VASCO

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

# LARRAÑAGA

## eta ZUBIA

### Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

## ZINEA



### LA MANO QUE MECE LA CUNA

Ostirala: 22.30.  
Larunbata: 17.00,  
19.30 eta 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30  
eta 22.15.  
Astelehena: 19.30.



### CRITTERS 3

Igandea:  
11.30etan

#### ▼▼ Rebecca de

**Mornayk** sari ugari eta kritika oso onak jaso ditu filma honetan egindako lanagatik. Bere senarra hil eta espero zuen umea galdu ondoren, haur zaindari bezala hasiko da lanean. Hasieran familiarekiko harremanak onak badira ere, laister hasiko dira arazoak: amaren papera betetzera heldu nahi izango du eta parean jartzen zaion guztiaren kontra joko du bere helburua lortzeko. Eta ez da txantxetan ibiliko.

▼▼ Hemen datoz berriro **Gremlins** bihurrien lehengusuak. Aurreko bi filmetan erakutsi ziguten bai ederki asko zer egiteko prest dauden eta hirugarren honetan ere ez dira makal ibiliko. Pentsaizue, gu gizakiok beren janik gustokoena garela esaten dute eta gosea dutenean kapaz dira edozein astakeri egiteko. Ez da inolaz ere patxadaz ikusten diren filme horietako bat...

## FUTBOLA

▼ **Talde Nagusia:** *Bergara K.E.-Mutriku.* Igandean, arratsaldeko 5etan, Agorrosinen.

## JAIALDIA

▼ **Akoka eta Zaldibobo** taldeak **Arrasateko** Monterron parkean **ostegunean**, 24ean, gaueko 10etan.

## DEIA

▼ **Autobusa** bete nahian gaitz biltza egunero arratsaldez **Bilbor** joateko. Interesa baduzu deitu: 76 43 39, Iñigo.

## FARMAZIAK

▼ **Larunbata 19:** Guallar / Corc.  
▼ **Igandea 20:** Guallar / Irizar.  
▼ **Astelehena 21:** Estella / Amez.  
▼ **Asteartea 22:** Mozos / Ruiz.  
▼ **Asteazkena 23:** Camacho / Morales.  
▼ **Osteguna 24:** Puy / Azkoaga.  
▼ **Ostirala 25:** Guallar / Corc.

## OGIA

▼ **Igandea 20:** Ogizun.

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
LOS CAZADORES  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

## LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



# Udal Kirol Zerbitzua

92 - 93

## GAZTE ETA EDADETUENTZAKO IHARDUERAK

<b>IGERIKETA TENISA</b>	✓ 20 ordutako ikastaroak ✓ 10 ordutako ikastaroak
<b>MANTENIMENDU GIMNASIA</b>	✓ Goiz eta arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean
<b>AEROBIKA</b>	✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean
<b>JAZZ-GIMNASIA</b>	✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, hiru egun astean

**3. ADINEKO  
GIMNASIA**

✓ Arratsaldez, urte osoan zehar, bi egun astean

## UDAL KIROL ESKOLAK

<b>KIROL ASKOTAKOA XAKEA</b>	✓ 1.984 - 81 artean jaiotakoentzat
<b>ATLETISMOA GIMNASIA ERRITMIKOA</b>	✓ 1.986 - 81 artean jaiotakoentzat
<b>ATLETISMOA BADMINTONA ESKUBALOA GIMNASIA ERRITMIKOA IGERIKETA KARATEA PELOTA SASKIBALOA XAKEA</b>	✓ 1.980 - 77 artean jaiotakoentzat

**INFORMAZIOA:** Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan. ☎ 76 39 42 - 3 - 4

**Deba bailadako azpiegiturei buruz**

Deba bailadan, besteak beste, Deba korredorearen hobekuntza garrantzitsua, Durango-Beasain autobidea, Maltzaga-Armiñon autopista izugarria eta Abiadura Haundiko Trena bezalako azpiegitura proiektu edo egitasmoek, Debaren ezaugarriak dituen bailada batean izango duen eragina guztiz haundia izanik Mendia Bizirik, Eki, Eguzki eta Amilotx Deba Garaiko talde ekologistek zera diogu:

1.- Eragin ekologiko ikaragarria sortuko duten azpiegitura lan haundiak dira. Lan hauen berezko ezaugarriek, hau da, zubi haundien eraikuntza, lur mugimendu garrantzitsu eta sortuko diren itxidura edota oztopoek, auzo, erreka eta mendietan eragina izango dute, eta interes haundiko zenbait toki desagertzeko arriskua ere badago, Etxezarreta eta San Martzial (?) adibidez.

2.- Ekonomia bultzatzeko ezinbesteko lanak bezala saldu nahi dizkiguite, ekonomia hazkundera ekarriko dutela, Europara hurbilduko gaituztela eta barne komunikazioa ere hobetzen dutela diote, ingurugiroan sortuko diren kalte izugarriak eta milaka milioi zuzen ez erabiltzea justifikatu nahian. Baina ingurugiro aldetik behintzat lan hauek ezin dira justifikatu. Ingurugiroari begira justifikaezinak dira. Bestalde,

garbi dago, lan hauek entresia batzuei etekin haundia emango dietela eta horren ondorio da Merkatal Ganbarak egiten duen presioa ere.

Aipagarria da bestalde, ekonomia hazkundera ezin dela berez helburu bat izan, baizik eta bizitzaren hobekuntza bat lortu behar dela bere arlo guztietan, garapen eta ingurugiroaren artean oreka egokiagoa bat lortuaz.

3.- Ez dugu Debako korredorearen zati batzuk hobetu behar ez direla esango, baina ez da gauza berbera hobetzea eta lan guztiz berriak egitea, kasu honetan egin nahi den bezala. Adibidez, ez da bidezkoa Arrasate eta Bergara arteko autobidea errekarren eskuma aldetik egitea, Etxezarreta hondatuz, San Prudentzion zubi haundi bat eginez, eta oraingo bidea batere aprobetxatu gabe.

4.- Guzti honi, informazio falta haundia gehitu behar zaio, hau da, proiektu hauek nolabait ezkutuan burutu nahia eta gizarteko arlo ezberdinak kontutan izan gabe. Tartean daude giza taldeen arteko eztabaida sakon bat beharrezkoa da, eta horregatik Gipuzkoa eta bailadako erakundeei eskatzen diegu eman dezatela argi eta garbi proiektu hauen inguruan egiten ari diren negoziaketa eta ematen ari diren pausuen berri.

5.- Kotxea eta abiadura beste guztien gainetik daudela pentsatzearekin bukatu beharra dago. Minutu batzuk

aurreratzea ez da ezinbestekoa, ingurugiroa zaintzea bai.


Aipatutako guztia kontutan izanik, Udalei, Foru Aldundiari, Jaurilaritzari eta talde politikoei hausnarketa serio bat egin dezatela eskatzen diegu, hau da, bailadan ditugun toki natural urriek duten garrantzia behar bezala kontutan hartzen saiatu daitezela. Izan ere, bestela inguru natural hauek kalte haundiak ezagutuko dituzte, proiektuak herritar guztien beharretara egokitzeko ahalegin bat egiten ez bada behintzat.

**Mendia Bizirik, Eki, Amilotx eta Eguzki**

**Berrigararen oharra**

Asko izango zineten joan zen asteko Berrigara, normalean baino egunen bat edo besteko atzerapenarekin jasoko zenuenak. Gure aldetik esan beharra daukagu, inprentako huts bategatik izan zela atzerapen hori. Berriz gertatuko ez delakoan, barka iezazkiguzue eragozpenak.

Tiiira ba!



Josu Okina

**□ Bakunazioa**

Ostiralean, hilak 25, gripearen kontrako bakunazio kanpainari hasiera emango zaio Mizpirualden ordubetetatik ordubietara 65 urtetik gorakoentzat eta bolante medikua duten 65 urtetik beherakoentzat ere. Seguritate Sozialaren kartilla eraman beharko da. Irailaren 30ean eta urriaren 1ean ere hartzeko aukera izango da.

**□ Euskaltegia**

Bergarako Udal Euskaltegiak 92-93 ikasturterako matrikula epea asteartean, hilak 22, amaitzen dela gogorarazi nahi du.

**□ Kofraixak**

Kofraixetako zozketan, 4.841 zenbakiak Menorkara bi pertsonarentzako bidaia irabazi du.

## HHik 92-93 ikasturterako matrikula epea zabaldu du

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak zabaldu du jadanik 92-93 ikasturterako matrikula epea. Aurten ere zentru honek oinarritzko heziketa jaso eta ondorengo ikasketetarako baliogarriak diren hainbat materia eskeintzen dizkie graduatu eskolarra lortzerik izan ez dutenei edota derrigorrezko eskolarizazioari dagekion adina gainditu duten pertsonaei.

**Hiru atal**

Hiru atal nagusitan banatzen da HHI edota EParen eskaintza: oinarritzko formazioan alfabetatu eta graduatu eskolarra lortzeko aukera dago; heziketa okupazionalan tailer ezberdinetan hainbat aktibitate burutu daitezke (zeramika,



fotografia edota ikasteko teknikak esate baterako) eta, azkenik, aktibitate soziokulturalak ere bada. Azken honetan heziketa funtzionala, garapen komunitarioa, emakumearen problematika, eztabaida taldeak edota aisialdirako heziketa aztertu izan dira. Helburu nagusia, parte hartzen duten pertsonak gi-

zartean erabateko integrazioa lortzea da eta gizartean ematen diren etengabeko aldaketa zientifiko, tekniko edota sozialei aurre egiteko prestatzea. Matrikula epea irailaren 30era arte izango da zabalik, Irizar Jauregian, goizez 10etatik ordubatera eta arratsaldez 4retatik 8etara.

## Gorla asfaltatzen

Altuna eta Uria enpresak hiru aste daramatza jadanik Gorkako bidea asfaltatzeko lanak burutzen. Bidearen egoera txarra zela eta Diputazioak berau konpontzeko erabakia hartu zuen eta 47 milioi inguruko aurrekontuarekin guztira 6 kilometro t'erdiko bidea (trenbidea pasatzen zen lekutik Gorkako gaineraino) asfaltatuko da hila amaitu aurretik. Lanen kostu osoa Diputazioak ordainduko du. Konpondu ondoren, bidearen egoera txarragatik beste toki batzutan egin behar izan ziren zenbait kirol ekitaldi Gorkara bueltatzea espero da.



**CALLASTEGUI**  
Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85

**SUBIJAI**

Gazteentzako moda


Irizar 1, Tfnoa: 76 42 41

**ORTZI**  
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



▼ Mariaren Lagundia txiki geratu zen ostiral gauerako JARDUN elkarteak antolatutako **Bertso jaialdia** ikustera bildu ziren 700 bat lagunentzat. Aretoa jendez gainezka, ateak itxi egin behar izan zituzten antolatzaileek. Barruan zeudenak, ETBko "Hitzetik hortzera" saiokoa ere tartean zirela ederto asko igaro zituzten jaialdiak irauin zituen bi orduak. Peñagarikano, Egaña, Jon Sarasua, Olaso, Euskitze, Mendizabal, Sebastian Lizaso eta Murua bertsolariak eta Lazaro Azkune jai jartzailek pozik utzi zituzten entzuleak.



▼ Jende ugari eta sekulako giroa larunb goizean Plazan izan genuena. Han izandak **Barazki, Fruitu, Lora eta Gazt Lehiaketan** irabazleak ondoko hauek izan ziren: Tomas Larrañaga antzuolarra barazkieta, Elena Luarizaristi bergararra loretan, Ascens Irizar antzuolarra fruituetan, Victoria Arre bergararra moztutako loretan eta azken epaimahaiak Jose Zufiria bolibartarrak ekarritak gaztari eman zion lehen sari

▼ Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bergararrek irabazi zuten larunbat gauean **Moises Aspiazu** zenaren omenez jokaturako

**Bikotekako Dantza Txapelketa.**

Guztira 16 partaidek hartu zuten parte, tartean Gabilondo anai-arrebak eta Aitzol Ena bergararrak (azken honek Josune Sarriegirekin bikotea osatuz).

Honetan giro nahiko hotza izan genuen, jende gutxi hurbildu bait zen Mariaren Lagundira.



JABIER ARETIO



JABIER ARETIO

▼ Burrundada ederra San Martinetan **Danborradekin** etorri zitzaiguna. Astearte gauean nagusiak, eta asteazkenean haurrek ere bere aukera izan zuten.



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

**TOKI-EDER**  
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84





▼ Igande goizean Iruñeako Orfeoia **Remijio Mujika** bere lehen zuzendari bergarra omendu zuen. Orain 100 urte sortu zuen bergarar ospetsu honek orfeoi iruñearra eta naparrek ondo merezitako omenaldia eskeini nahi izan zioten. Bergarako Udalaren harreraren ondoren, Remijio jaio zeneko etxean (Barrenkale 44an) plaka oroigarri bat azaldu zen eta jarraian Iruñeako Orfeoia San Pedron ospatutako Meza Nagusian abestu zuen.



▼ 48 margolarik hartu zuten parte igande goizean jokaturako San Martin **Margo Lehiaketa**ren XIX. edizioan. Jon Idigorasek lortu zuen garaipena eta Javier Igoak eta Eugenio Hervasek bigarren eta hirugarren sariak eskuratu zituzten. Bergarako 14 pintoreen artean, berriz, Anton Arrillagak irabazi zuen herritar onenari zegokion saria.



▼ Dinbi-Danba Kirol taldeak antolatutako **Abankargazko Plater Tiraketa** ere benetan ikusgarria suertatu zen igandean. 15 partaideek saio oso disputatua eskeini zuten eta 25 plateri tiro egin ondoren Javier Pastor eta Fernando Gurmendi

berdindurik izan genituen sailkapen buruan (23 plater), bigarrenen Juan Mari Fernandez eta Antonio Aramayo eta hirugarrenak Urko Gurmendi eta Javier Linazisoro. Datorren edizioan proba hau Espaniako Txapelketarako baliogarria izan daiteke.



JABIER ARETIO

▼ Itxuraz jendeak korrikarako gogoak zeukan larunbat arratsaldean eta 200 bat korrikalarik hartu zuten parte San Martinetako **III. Herri Krossean**; nagusietan Anjel Ayastui donostiarrak irabazi zuen eta Xabier Azkarate antzuolarra hirugarren heldu zen helmugara, jubeniletan Roberto Rekalde eibartarrarentzat izan zen garaipena (Nora Laskurain izan zen herriko junior onena) eta infantiletan Arrasateko Urko Bediak irabazi zuen, David Zamorano eta David Acosta bergararrak 3: eta 4. postuan sailkatuz.

## ETXAGI

### Jatetxea

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka, 4 ☎ 76 53 12

## KIZKUR



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



# Udaiagako Asentzio ermita

## Hiru berezitasun

Asentzioko mendi gainean, Angiozartik Elgetara dihoan bide bazterean dago ermita.

Euskal Herriko gude-

tan behin baino gehiagotan hondatu izan da. Hain toki egokian dago, eta erasoak eta ekaitzak erregogor eragin izan diote.

1.672. urtean hasten den liburu bat dauka.

Ermita honek hiru berezitasun dauzka. Alde batetik Elgetako mugen

barrenean dago, baina Angiozarko parrokiaren menpe edo esku. Bestetik, ez du sekula zurezko irudirik eduki, pintatutako bat dauka. Hirugarren berezitasuna maiordomuetan dauka. Baserritik-baserrira eta urtetik-urtera txandakatuaz auzo bakoitzeko ermitak bere maiordomua dauka, edo izan dute behintzat; honek, dagokion urtean, giltzak jasotzen ditu, diru kontuak eraman, santu nagusiaren eguneko elizkizunaren ardura eduki, e.a. Eta hemen dago gakoak: Asentzioko ermitaren maiordomoa ez zen besteetan esandako ardura zuzentzen, Angiozarko apaizak eta Elgetako alkateak baizik.

Gai horretan auzoak ardura eta indar gutxiago zeukan, eta Eleizak edo Udalak gehiago. Horrela zergatik izango zen ez dakit; agian, ermita hau egiteko auzoko arrazoitik aparte besteren bat izango zen.

**Imanol Sorondo**

**ESPOLON** MATRIKULATZEKO AZKEN ASTEA  
**KURTSO HASIERA: IRAILAK 28**



School of English

- ✓ Gazte eta helduentzako klaseak
- ✓ Goizez eta arratsaldez
- ✓ Azterketa ofizialetarako prestaketa

**CAMBRIDGE-eko Unibertsitateko  
P.E.T.erako matrikula**

INFORMAZIOA: 10.00 - 12.30 16.00 - 20.00  
Ibargarai 31, barruko plaza. ☎ 76 03 53




**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**SURPE**  
**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
**ANTZUOLA**

**E**zaguna da Bergaran TAVEX taldea, bere lantegirik zaharrena -dagoeneko 146 urte dituena- San Antonioko "Algodonera" delako. Valentziako "Alginet Textil S.A." eta "Millares Textil S.A." talde honetako partaide dira beste batzuen artean, azken hiru urteotan; baina TAVEXen inbertsiorik berriena Marruekoson dago. Casablancatik Marrakecherako bidean aurkitzen den Settat herrian zabaldu dute azken lantegia: SETTAVEX, S.A. Lantegi hau zabaltzearen arrazoiei buruz, enpresaren inguruko gorabeheraz eta Marruekoson bizitzearen esperientziaz aritu zitzaizkigun abuztuaren 18an Settaten bertan, zuzendaritza taldeko hiru kide, tartean bergarar bat: Pedro Aiastui.



Hassan II.a testigu dutela, Jorge Rodríguez eta Saïd Messal zuzendari teknikoak eta euren artean Pedro Aiastui bergararra.

## SETTAVEX: Marruekosko Tavex

**Pedro Aiastui:** Bi dira TAVEX taldeko lantegi hau hemen egotearen arrazoiak. Alde batetik, garatzen ari den Marruekos honetan merkatu haundia daukagu: urtean 30 milioi praka bakero egiten dira hemen eta

horretaz gain, praka horiek egiten dituzten konfeksionistak, gure bezeroak, oso gertuan dauzkagu: Casablancan %eko 99a.

Bigarren arrazoia eskulanarena da. Oso merkea da Marruekoson. Es-

kulan merkea eta merkatu zabala daudenez, dirua egiteko zabaldu da lantegi hau.

**Berrigara:** Jende asko ikusten da kalean bake-roz jantzita, baina txilabak ere asko ikusten dira...

**Saïd Messal:** Egia da kontraste hori kalean nabaria dela, baina geroz eta jende gehiagok erabiltzen ditu bakeroak.

Nere amak ere erabiltzen ditu! Lehenetarikoa izan zen.

**Berrigara:** 1.991eko ekainaren 30ean zabaldu zen ofizialki SETTAVEX eta momentura arte ondo doa. Makinaria eta pabeloiak gehitzeko asmoa ere badute dagoeneko.

**FANCY**

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**LAZKANO**

**OINETAKOAK**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

**S.M.:** Une honetan 260 langile ditugu. 48 ordu egiten dute lan astean lau taldetan banatuta. Settat bertakoak dira gehienak, nahiz Casablanca eta Fezetik etorri diren zenbait espezialista. Langilegoaren %eko 25a emakumezkoak dira.

**P.A.:** Lan egutegiaren okerrena jai egunak dira, festa erlijioso asko noiz den ilargiaren arabera erabakitzen delako.

**S.M.:** Bai, guk egutegi musulmana erabiltzen dugu. Aurten, 1.412. urtea da. Eta egutegi hau ilargiaren arabera antolatzen da. Askotan ilargiari begira egoten gara hurrengo eguna jai izango den ala ez jakiteko.

**Jorge Rodriguez:** langileen mentalitatea oso ezberdina da: ez daude ohituta zortzi ordutan kalitate on bat eskeiniz, horrenbeste produzitzen. Hori ezin zaie buruan sartu.

**S.M.:** Ohituko dira. Denbora behar da.

### Europak atek zabalik Marruekoson

**S.M.:** Bakero tela egiten dugu hemen. Algodoa erosi, haria egin, kolorea eman eta bakero tela bera egin. Makinaria aurreratua eta sistema informatizatu bat erabiltzen dugu horretarako. Milioi bat metro produzitzen dugu hilabetean eta gure

asmoa, urtean 12 milioi metro egitea da.

**P.A.:** TAVEX taldeak Bergara eta Valentzian dituen lantegiek 20 milioi metro egiten dituzte urtean (6 Bergaran eta 14 Valentzian). Hemen 12 milioi metro, 30 milioi praka eskatzen duten merkatu batentzat. Merkatua egon, badago, eta lantegia haunditzean merkatu hori geureganatzen saiatuko gara.

**Berrigara:** SETTAVEX dagoen industrialde honetan beste lantegi batzuek ere ikusi ditugu. Herria bera aldatzen eta modernizatzen ari dela ere konturatu gara...

**S.M.:** Bai, Marruekosko gobernua ahalegin bat egiten ari da industria guztia Casablancan gera ez dadin. Laguntzak ematen dituzte inguruko herrietan lantegiak jartzeko.

**J.R.:** Esan beharra dago, bailara hau Marruekosko nekazalgunegarrantzitsuenetariko bat dela eta enpresa berri asko ari direla hemen kokatzen: libiako papelera bat dago (500en bat langile), Italiako kristal fabrika bat ere bai (2.500 langile) eta VOLVO ere etortzekotan omen dabil. Kanpoko inbertsioei, Europako Ekonomikaren Elkartearen lurraldeak bereziki, ate guztiak zabaltzen dizkie Marruekosko gobernuek.

**S.M.:** Eta ez da ahaztu behar, Marruekosko barne ministroa eta Hassan



## "Milioi bat metro bakero-tela egiten dugu hilabetean"

II.aren eskubiko eskua Settaten jaiotakoa dela. Bere eraginez, inguru honetarako laguntza eta proiektu asko bideratu ditu gobernuek.

**Berrigara:** Zer nola-ko egoera bizi du Marruekosko industria testilak?

**J.R.:** Testilen arloan, munduko potentziarik haundientakoa da une honetan Marruekos. Baina enpresarik gehienak

erropak egiten, konfektzionatzen aritzen dira.

**S.M.:** Gutxi batzuek gara erropak egin aurretiko prozesu osoa lantegi berean egiten dugunak: algodoia erosi, haria egin, kolorea eman eta bakero tela egin.

### Inbertsio haundiak balna errentagarriak

**J.R.:** Inbertsioak izu-

**ITXASMENDI**

**Taberna**

Barrenkale 36  
Tfnua: 76 50 64  
BERGARA



**ONENA**

**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

garriak dira. Dena inportatu egin behar da eta horrek gastuak asko gehitzen ditu. Makinak ere puntakoak dira eta gastu haundiak dituzte. Dena den, Europan baino askoz ere lehenago amortizatzen dira Marruekoson gastuak.

**Berrigara:** Settateko lantegi honetan beti egon beharko al du Bergara edo Valentziako norbaitek? Bertako jendea bakarrik geratuko al da inoiz?

**J.R.:** Hori ez dago gure esku, zuzendaritza orokorraren erabakia da. Gure ustez ordea, lantegia sendotu arte -lau edo bost urte beharko diran honetan prestatutako jendea beharrezkoa da. Jende hori, jakina, Marruekos bertan topa daiteke, badago eta... Hori bai, lantegi honek eskatzen duen martxa eta baldintzak betetzeko prest egon beharko dute. Lan asko egin behar da hemen... Baina emaitzak ere onak dira: enpresa gutxi egongo da munduan, urtebetean, gu lortzen ari garen kantitate eta kalitatezko produkzioa dutenak.

**Testua eta Argazkiak:**  
Tere Beloki  
eta Miguel Angel  
Elkoroberezibar

## PEDRO AIASTUI:


**"Hau izugarri gogorra da, baina esperientzia oso ona"**

**Pedro Aiastui, 32 urte, momentu honetan Settavexen dagoen bergarar bakarra dugu. Urtebete pasatxo darama bertan. Kalitatearen kontrola eta bezeroekiko harremanak dira bere ardura nagusiak.**

**Bergarar asko pasatu dira lantegi honetatik, eta aipatzekoak dira horien artean, Luis Mari Gonzalez -urte bat igaro zuen tinturaren muntaketa antolatzen- eta Luis Ignacio Sanchez -expediziotako almagazenean hamar hilabetez aritu zen-.**

"Hona etorri nintzeanean, hau benetan txoke bat izan zen. Hamabost egunerako etorri nintzen, eta gehien gustatu zitzaidana lantegia bera izan zen, duda barik. Ederra zen lantegia, eguraldia ere egokia, eta Marruekoson abendura arte (1.991) egotea erabaki nuen. Baina hemen sartzen bazara, alde cgittea oso zaila da... lantegi honetan gogorlan egin behar delako eta aldaketak ez direlako komeni.

Lantegi berri batetan moralki obligatuta sentitzen zara. Hau jaioberri bat bezalakoa da, eta gu bere gurasoak gara; egunero eman behar diogu biberioia eta negar



asko egiten du. Baina polita da... eta batek asko ikasten du, nekagarria izan arren. Hemen urte bat igarotzea beste inon hamar urte igarotzea bezala da.

Settavex, Marruekoson dagoen kalitate mailari dagokionez, bakertela egiten duten lantegi guztien artean onena da.

Marruekoson kalitate exijentzia handia dago eta lan asko egin behar da maila on batetara iristeko, beti puntan egoteko, zeu onena zarelako demostratzeko.

Hemen oso pertsona metodikoa bihurtzen zara eta oso zorrotza langileekin. Beti gainean egon behar duzu, eguna joan, eguna etorri. Langileengan lanerako espiritua sortzen eta indartzen saiatzen gara. Argi dago, pazientzia handia behar dela!

Era guztietara, esperientzia oso ona izan da; ez nekien gauza asko ikasi dut, etorkizunetan lagungarriak izango ditudanak. Benetan interesgarria izan da".

**EL EKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

## Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



### ETXE AUNDI

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

# FS

oto sistema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## ARDATZA

*Brikolaketa*

ATEAK  
eta  
HORMA  
ARMAIRUAK

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93

## Su artifizialak gustoko al dituzu?




**Kontxita Larrea**  
69 urte, etxeakoandrea

Bai, baina aspaldiko urteetan ez naiz ikustera joan.




**Anastasio Ugarte**  
65 urte, jubilatua

Politak dira baina ez ditut azkenaldian ikusi. Gaztetan gehiago ikusten nituen.



**Joseba Duran**  
16 urte, ikaslea

Bai, ondo daude. Behar bada Pazkuetan ere jarri beharko lituzkete.



**Ana Breña**  
18 urte, langilea

Asko gustatzen zaizkit eta urtero ikusten ditut, bai Samartinetan eta baita Donostian ere.



## IRAKASLE ESKOLA E s k o r i a t z a G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:  
1.992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.

### ESPEZIALITATEAK:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA: Irakasle Eskola. ☎ (943) 79 04 40  
ORDUTEGIA: 9 - 13



## Trobadore berrixak

Hau da hau jende mordua!

Zela leike? Aretua izango da, Frontoia hotza da ta.

Ze majua dan hau! Kriston grazia dauka horrek. Neretako guapuna beste hori da.

Urtetan ezkutuan egon badie be, bueltia etorri eitzen dala ta, hemen ditugu berriro trobadoriak, euskaldun peto ta jatorraren eredu ta ispilu.

Bertsolaritza ghetotik irten ta izugarri zabaldu da denpora gutxian, ikastolak, bertsolari eskolak, komunikabideak, bertso saioak, txapelketak, entzuleak, danak lagundu dabe horretan.

Baina kontuz, ahozko literatura herrikoiak eztau sekula horrenbeste enbajada euki ta hau arriskutsua izan leike gehixegi puztu ezkeru.

Horregaitxik hobe poliki-poliki jutia, berrixak dien esparruak ondo aprobetxatzea ta bertsolariak berez daukan grazia ta emozifua bere inguruan mobidu dien hainbat topiko baztertzeko erabiltzia.

**Joxe Lazkano**



## Egun bat EXPON

Irailaren 5a, goizeko 7.30ak, hoteletik irten eta 8etarako EXPOk sarreran, iladan gaude. 9etan, barrura sartu eta korrika. Bai-bai, korrika, EXPOk zenbait pabiloi ikusteko horrela ibili behar da. Antxitxika egin ezean 6, 7 edo 8 ordutako iladetan egon behar zen. Guk aukera egin genuen: hainbeste orduetan iladetan egotea baino nahiago genuen 7etan jaikitzea. Fujitsuko txartela/sarrera eskuratu genuen: arratsaldeko 14.45etarako zen. Bitartean beste pabiloi batzuk ikusteko iladetan jarri ginen. Han denetarik entzuten zen:

- "Zer? Kanadako iladan atzo batzuk 7 orduz egon zirela? Jendea jota dago! Hobe zuten abioia hartu eta Kanadara joatea!"

Egunak aurrera egin ahala, eguzkia zulatzen hasi zen. Tripa zorriak dantzan. Ordu bat t'erdietan, bazkaltea erabaki genuen. Eskatutakoa atera orduko ordubiterdiak ziren. Azken mokadua eztarrian genuela Fujitsura abiatu ginen, 14.45ak zirelako.

Eta, zer? Hori al zen guri hainbeste buruhauste eman zigun pelikula? Azkenean, usteak ustel.

Arratsaldeko 5ak, 45 gradu, egarriak, baina... makinek tantanik ematen ez. Dena agortuta: ura, Coca-Cola..., dena. Azkenean, taberna baten zerbeza 250 pezeta ordaindu genuen.

Hurrengo egunean lo bapo egin eta 12.15etan sartu ginen EXPOn. Ez genuen ikusi ez Japon, ez Kanada, ez Australia... baina oso ondo pasa genuen, aurreko egunean baino askoz hobeto.

**Jone Larrañaga**

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-Taberna**

Eguneroko janariak -  
Txitxizotzak - Kazolatxoak -  
Txabierroak

Matxiategi 1, ☎ 76 39 53

## BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA

(Psikologia Gabinetea)

•**Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:

- Kontsulta, diagnostikoa eta tratamendua ( haur, gaztetxo eta helduentzat)
- Eskola atzerapenarako laguntzak, ikastetxeentzako zerbitzuak.

•**Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, toteltasuna,...)


**Herri-Lagunak (Aranzadi ikastolako patiotik sarrera)**  
Tfnoa: 76 14 80. Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal



# Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



**Merzeria - Lenzeria**

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko boteliatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

**Hagin  
klinika**


*Idoia Iriarte Iureta*

Artetale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

## □ Txapa

**Txapa Irratiak** emisora berria lortu eta frekuentziaz aldatzen duela jakin arazi nahi die bere entzuleei. Horrez gain, irratizale guztiei dei egiten zaie programa berriak egitera animatu daitezen.

Hortarako, asteartero arratsaldeko 7etan bilera bat izango da Kultur Etxean programazioa zehaztu eta irratia ren inguruan sortzen diren gauza ezberdinak komentatzeko. Joan den astean ere hor izan genituen bildurik, guztiak proiektu honek aurrera egiteko itzaropenaz lanean.



## □ San Bartolome ikusi barik

Zabaletamendikoek ezin izan zuten urtero bezala abuztuaren 24ean **San Bartolome** ermitan mezarik entzun. Santuaren omenezko eguna ospatzera hurbildu zen jendeak ezin izan zuen ermitara sartu eta, **Lamarain** baserrikoekin ermitaren jabetzaren inguruan tira-birak eta amaigabeko eztabaidak izan ziren. Azkenean jendea haserre, meza ermitaz kanpo eta norbaitek konpondu beharko duen arazoa...

# Amets

Zerbitzuak haundiagotuz  
**HERGO** karabanen  
banatzailea



Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

**AMETS** Tailerrak

Berezano Auzoa • OÑATI





❑ **Urkulu-Bergara-Elgeta**

Pasa den abuztuaren 18tik **Elgeta** urez **Urkuluko** presatik hornitzen da, azken urteotan izandako ur-arazoei irtenbidea emanez. Ura, ur-bonbaren bitartez, Bergaratik eramaten da, segunduko 16 litro eta egunero milioi bat litro inguru bidaliz. Kontsumoa, berriz, 250.000 eta 300.000 litro ur tartean kokatzen da Elgetan. Arazoa konpondu bada ere, Udaletxeak dituen instalazioak mantendu egingo dira, ustegabekoren bat sortzen den kasuetarako. Ur faltan behintzat ez daudel!

❑ **Kanpeoi**

**Josu Alzpiri Lokatza**


**Sumofic** taldeko txirrindulariak **Udazkeneko Saria** irabazi zuen pasa den igandean Eibarren. Josuk 18 urte ditu eta igandean bakarrik heldu zen helmugara. Horrez gain, mendiko saria ere berak eskuratu zuen, orain gutxi izan duen belauneko operaziotik guztiz errekuperatuta dagoela argi utziz, eta taldekako garaipena ere bergarrentzat



izan zen. Zorionak Josuri eta ea denboraldiaren amaiera honetan honelako garaipen gehiago heltzen diren...


**Zertan dibardute ba?**

**ANGEL MARI IÑARRA**



25 urteko saskibaloiari bergarar honek azkenik Bergarako hirugarren mailako taldean jokatu du aurtengo denboraldian, Arrasate K.E.rekin fitxatzeko negoziazioak ezerezean geratu baitira.

**JOSE ANTONIO BOROBLA**



Leioako Fakultatean Arte Ederretan lizentziatutako 25 urteko bergarar honen oleo erakusketa ikusgai izango da Gasteizko *Caruso* kafetegian datorren ostiralera arte, hilak 25.

**LARREA**

**TABERNA**

**Kale Barren 17  
ANTZUOLA**

**EGUREN  
GESTORIA**

**MARIA PILAR EGUREN DIEZ**  
Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

**ileapaindegia  
eder gela**

**disdira**

**Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55**

## Umore giroan

### Guardia zibillak zaintzen

"Punteret", eibartar moduan, apurtxo bat "faro" zan eta batez be umoretsua. Berba errezekua zan eta naiko gora jasotzen zeban bere abotsa. Beñ batian, bera zeguan tabernan suertatu da kanpotar bat eta "Punteret"en "parlamentua" entzunda, galdetu zeban:

- Ori gizonori nor dok? Ori eztok edozein!

Esaten zetsen "Punteret"i zer galdetzen zeban gizon arek eta orduan, berak, ataratzen dau boltsillotik ontzako urria, zidarrezko bi ogerleko eta milla pezetako billetia eta diñotse:

- Esaixozue orri auxe naizela!

Orregaitxik, naiz ta broman, esaten zeban "punteret"ek:

- Guk, dirua daukagunok, guardia zibillak euki biarko gendukiaz zaintzen metrotik metrora.

\* \* \*

### Belarritxakuak ditzuk ala

Beñ STAR fabrikan, flejez beteta etorri zan kamioi bat ustutzen zebizen biargiñ talde bat. Danak, gitxienez bi bulto aundi zaraiozen karretilletan al-mazenatzera. Gure "Balbotiñ"ek baiña, bat bakarra zarioian. Konturatu da ugazaba eta esaten detsa:

- Ezin ditzuk bi eruan ala?

- Zer ba, belarritxakuak dira ala?

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Santa Katalina

Santa Katalina baselizan (Salbatzailearen izanaz ere ezaguna) santa honen beste imajina ezin ederragoa aurkitzen dugu. Zutik eta koroatua ageri da, ezkerreko eskuaz ezpatari heldzen dio eta eskuinekoan martirioaren gurpila erakusten du; irme eta gogor azaltzen da eskala txikiagoan egindako pertsonaia koroatu bat oinzapaltzen duen bitartean; hitz gutxitan esanda, ohizko ikonografiari jarraitzen dio.

Ederki landutako obra da, ardua haundiz egina, eta bi ezaugarri aurkezten ditu nagusiki: argiluntasun bizia eta elementu apaingarrien lehentasuna. Ohialak dotore jautzen dira tolestura hautsie eta sakonak, fin eta ondulatuak sortaraziz; jantziak kabuxoizko xartaketak gogorarazten dituzten orlak

aurkezten ditu; adatsak marko aberats baten itxura hartzen du argiluntasun biziko begitarte lasaia inguratzen du argiluntasun biziko begitarte lasaia inguratzeko (ez dezagun ahaztu trepanuaren lana),... guzti hau, bada, XV. mendearen azken urteetako obra aparta honen edertasunaren lagungarri bihurtzen da.



M. J. Aranburu  
Jesus Gil Masa

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Telefonoa: 76 24 88 BERGARA

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

**INGELES  
FRANTSES**

**UNEDen**

92 - 93 ikasturtea

Klaseak: goizez eta arratsaldez

Matrikula: Irailaren 10etik aurrera


Informazioa: UNEDen (3. pisuan), 4etatik  
8etara. ☎ 76 13 42.

Kurtso hasiera: urriak 1

# BONOFOTOA



M. A. Elkoro berezibar



## Pablo Mendibil

Pablo Mendibil izan dugu aste honetan BONOFOTOko sariaren irabazlea. 10.000 pzta eman diogu berak jarritako erantzuna, Elorregi auzoko San Prudentzio eliza pareko zubitik argazkian agertzen zen Osintxuko zubira arte, Deba ibaia jarraituz 33 zubi zeudela, zuzena zelako.  
ZORIONAK!!

**Noren omenez eraiki zuten monolito hau eta zein enparantzatan aurkitu dezakegu?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Aste honetako saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

# LILURA

## Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
 Bakoitzarena banan-banan zaindu  
 beharra dago.  
 Utzi ezazu benetako espezialisten  
 eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA

# DON PASCUAL

Barrenkale 24

HARATEGI BERRIA

BERGARA

## OPARIAK eginez jarraitzen dugu !!

### Irailaren 21etik urriaren 3ra arte ESKAITZA BEREZIAK!!

#### Txahalkia

- ✓ Tajadak, lehen mailakoak:  
1.140 pezeta kiloa
- ✓ Txuletak:  
1.140 pezeta kiloa
- ✓ Tajadak, 2. mailakoak:  
890 pezeta kiloa
- ✓ Gisatzekoa:  
590 pezeta kiloa

#### Txerrikia

- ✓ Solomo txuletak:  
690 pezeta kiloa
- ✓ Burualdeko txuleta:  
390 pezeta kiloa

#### Oilaskoa

- ✓ Paparrak:  
890 pezeta kiloa
- ✓ Hegoak:  
280 pezeta kiloa
- ✓ Iztarrak:  
280 pezeta kiloa

□ **Garaipena**

**Bergara Kirol**  
Elkarteko lehen futbol taldeak 2 eta 1 irabazi zuen ligako lehen partiduan joan den larunbatean Lazkaora egindako bisitaldian. Bergararen bi golak Fran aurrelariak sartu zituen. Igandean, hilak 20, Mutrikuren aurka jokatuko dute arratsaldeko 5<sup>ter</sup>dietan Agorrosinen. Bestalde, 2. Regional mailako taldeak ere Urnietari 1 eta 0 irabazi zion Juan Luis Etxanizen gol bati esker eta igandean Tolosaren aurka jokatuko du Berazubín arratsaldeko 5etan.

□ **Ehiza**

Ehiztariei beda erdia igandean, hilak 20, itxiko dela eta beda orokorra urriaren 3an zabalduko dela jakin arazten zaie.



**Argazki Lehiaketa**

Bergarako Udal Kirol Zerbitzuak Kirol Argazkien bigarren Lehiaketa konbokatu du. Lehiaketa honetan Euskadin bizi diren afizionatu guztiek har dezakete parte eta zuribeltzeko zein koloretako lanak jasoko dira. Lanak aurkezteko epea azaroaren 18an itxiko da eta argazkiak (gehienez lau, kategoria bakoitzeko) 30x40 zm.ko kartulinarik entregatu beharko dira Udaletxean edota posta zertifikatuz Udaltxeko Kirol Zerbitzura bidali. Argazki paperaren tamaina eta argazkiko

irudia ere bakoitzak aukeratu ahal izango du. Lanen atzekaldean egilearen datuak adieraziko dira. Epaimahaiak azaroaren 21ean emango du jakitera erabakia eta abenduaren 2tik 13ra bitartean lan onenak ikusgai izango dira Kultur Etxean.

Sariei dagokienez, kategoria bakoitzean sailkatzen diren lehen hiruak 20.000, 15.000, 10.000 pta. eta trofeo bana jasoko dute eta herriko unenak, berriz, 10.000 pta. eta trofeoa. Sari banaketa, abenduaren 12an.

□ **Mendi irteera**


**Pol-Pol Mendizale Taldeak** eta **Gorla Alpino Taldeak** Opakua-Arazetara mendi irteera antolatu dute datorren iganderako, hilak 27. Irteera goizeko 7etan izango da Plazatik.

□ **Txirrindularitza**

**Jose Cuestak** (Caja Vital) irabazi zuen igande goizean jokatuako San Martin XXVII. Txirrindulari Saria. Alberto Gabilondo (Lekeitalde silloiak) bergararra 34. postuan sailkatu zen irabazlearen denbora berarekin.

□ **Tenisa**

Udal Kirol Zerbitzuak tenis ikastaroak antolatu ditu irailetik abendura bitartean. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira arratsaldeko 7.30tan. Bazkideek 1.000 pta. eta gainontzekoek 1.500 ordaindu beharko dute.




PAPERDENDA

**Marcó**

Bidekurutzeta, 44  
Tel. 943 / 76 05 54  
Fax. 943 / 76 05 54  
20570 BERGARA

GIMNASIA



**Gimnasia Erritmikoa**

**gustoko baduzu, orain daukazu aukera.**

**Anima zaitzez!!**

**Etor zaitetz Kultur**

**Etxean Bergarako**

**Kultur Ekintzak**

**Elkarteak duen**

**bulegora eta apunta**

**zaitetz.**

**MATRIKULA zabalik irailaren 30era arte.**



### 1.945ko "Congreso Eucaristico" a

**I**karagarrizko eliz-ospakizunak izan ziren Bergaran 1945eko ekainaren 6tik 10era, bertan ospatu zen «Congreso Eucaristico»-a zela eta. Kontzertu, hitzaldi, otoitz-saio, etab.-ik ez zen falta izan eta inguruetako elizgizonik haundienak hemen izan ziren.

Artzapez-barruti mailakoa izan zenez, bailarako herri guztietako eliztarrak izan ziren bertan.

Hilaren 7an inaugurazio-ekitaldiak burutu ondoren, hilaren 8a abade, maisu eta umeei eskaini zitzaizkien; 9a, berriz, emakumezkoiei eta 10a gizonezkoiei.

Bergarakoaz gain, Eibar, Arrasate, Segura, Ordizi eta Irunek ere antolatu zituzten urte hartan beren «Congreso»-k.

Hara, bada, ospakizun horien artean ateratako erretratu honetan, lehenengo iladetan agertzen diren ume eta gaztetxoak, ezkerretik eskumara:

**Lehenengo iladan:** Jose Maria Akizu, Juan Mari Leturia, Patxi Leturia, Jose Luis Alberdi, Jose Alberdi, Jesus Mari Alberdi eta Francisco Alberdi.

**Bigarren iladan:** Luis Mari Alberdi eta Julian Alberdi.

*Estepan Plazaola*

*Argazkia: Patxi Leturia*

**ABDON JUARISTIK**  
pintura ikastaroak

☎ 76 47 98 (12etatik 14etara)

Hasiera: Irailak 30



**PortuGas**

NATURGAS, S.A. enpresaren kolaboratzaile

Gas, berogailu eta  
aklimatazio  
lanetarako  
proiektuak eta  
instalazioak

**ALEX GARDOKI**

☎ 76 27 17

**ETXEBIZITZA**

Lokal bat alokairuan Irizar 2an.  
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Neska bat behar dugu pisua Donostian (Egian) konpartitzeko.  
☎ 76 36 96.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

Andereño batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 65 00 25.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaeuz.

Garajea salgai Espaloian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Deuston pisua betetzeko jendea nahi dugu. ☎ 76 34 92, goizez.

Espaloian garajea salgai ☎ 76 23 27.

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

Zaragozan pisu bat osatzeko neska euskaldun bat behar dugu. ☎ 75 19 98 / 79 28 71.

Etxe bat alokatzen da, San Antonion. ☎ 75 21 39.

Pisua konpartituko nuke Matxiategin beste pertsona batekin ☎ 76 24 57.

**SALDU-EROSI**

Berogailu japoniar bat salgai. ☎ 76 50 12.

1.992-93 ikasturterako, egunero Donostlara joan-etorria egiteko, autobusa bete nahi dugu. Interesatuta bazaude deitu 77 00 65era.

Collie arrazako txakurkumak salgai ☎ 76 31 35 / 15 04 41

Mendiko bizikletaren XT.92 freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gaeuz).

Bigarren eskuko futbolin eta bilarrak salgai. ☎ 76 12 00 / 45 21 93.

3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa salgai (SS-X). ☎ 76 05 92 (gaeuz).

Matrimonio logela bateko altzariak salgai. ☎ 76 44 27 (gaeuz).

Ingeles kurtso bat kasetetan erosiko nuke. ☎ 76 54 26.

XR 2 i kotxea salgai. 2 urte, berri-berria. 55.000 Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

Elektragailuak (garbigailua, hozgailua...) erosiko nituzke ☎ 76 17 85.

Gastelzera egunero joateko kotxe bila gabiltza ☎ 76 31 55. (Aitor)

Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

Taberna alokatuko nuke ☎ 76 53 73.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako diske-tera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

**LANA**

Taberna alokatuko nuke ☎ 76 53 73.

Arratsaldetan gaixoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Mutil batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska bat behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

**Hildakoak**

*Aste honetan ez da inor hil Bergaran.*

**Jaiotakoak**

*Jon Rivero Gutierrez*  
irailaren 8an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**DENA 100**

**pzta.tan**

**Ireki berria**

**SIMON ARRIETA 3an**

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK




**6 URTEKO GARANTIA**

ELECTRICIDAD

# ELKAR



ELEKTRAGINTZA



# 76 00 00

**MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK**